

## Kutsadura akustikoa kontrolatzeko oinarriak

### XEDEA

Karrozek, konpartsek (plataformarekin edo gabe), elektrotxarangek eta soinua anplifikatzea dakarren beste edozein motatako jarduerak **sortutako zarata-maila garatu eta kontrolatzeko** beharrezko arauak ezartzea, edozein dela ere haien anplifikazio-sistema eta TOLOSAKO UDALAK "IÑAUTERIAK 2020" GISA IZENDATUTAKO DATA ETA ORDUETAN, EGUNGO ARAUDIA BEHIN-BEHINEAN ALDATZEN ETA/EDO ETETEN DUTENAK.

### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Musika-jardueratik datorren zarata arintzeko edo kontrolatzeko, iturrian jardun behar da bolumena **mugatzeko gailuak instalatuz** (erregistragailuarekin edo erregistragailurik gabe) soinua igortzen duten ekipoetan.

Musika edo soinu ekipo guztiak mugatzaileak erregulatuko ditu. Mugatzaile bakarrarekin mugatu ezin badira, musika ekipo guztiak bilduko dituen talde mugatzaile bat baino gehiago erabiliko dira.



**90dB Gehienez**

### BIZIKIDETZA

Beharrezkoa den bizikidetzaren mantentzeko eta bizilagunei eragozpenak gutxitzeko asmoz, **ez da onartuko** araudi honetan ezarritako mailak gainditzen dituen zaratarik sortzen duen jarduerarik, betiere, sustatzaileen erantzukizunpean eta Tolosako Udalak ekitaldi eta ikuskizunetako arau-hausteetarako ezarritako araubidearen arabera

### KUTSADURA AKUSTIKOA MUGATZEKO XEHETASUNAK


- ◆ **1. Ekipo mugatzailea ipini.**
- ◆ **2. Gehienezko soinu mugak ez gainditu.**
- ◆ **3. Bozgorailuak soinuaren noranzko modu egokian instalatu.**
- ◆ **4. Emanaldirik ez dagoenean, musikaren bolumena, gutxienez, baimendutako bolumenaren erdira jaitsi**

### MUGAK ETA ORDUTEGIAK

<b>09:00etatik 22:00etara</b>	<b>GBA ≤90dB</b>
<b>22:00etatik 01:00etara</b>	<b>GBA ≤55dB</b>
<b>01:00etatik 09:00etara</b>	<b>GBA =0dB(1)</b>

(1) Ez da inolako emisio akustikorik onartuko konpartsen, karrozen eta, oro har, edozein soinu-igorleen aldetik.



## MUGATZAILEA NOLA INSTALATU



### Ekipo mugatzaileen ezaugarriak

1. Neurketa-ekipoan izan daitezken manipulazioak detektatu ahal izateko barne-kalibratzioko sistema.
2. Babes-mekanismoak (giltza elektronikoen edo sarbide-gakoen bidez), gerora manipulaziorik egin ez dadin, eta, manipulazio horiek egiten badira, erregistratzailearen barne-memorian jasota geratzea ahalbidearatuko duena.
3. Ekipo hori zer soinu-mailatan konfiguratzeko den dagozkion eskakizunak betetzeko.

## BOZGORAILUAK SOINUAREN NORANZKOAN INSTALATZEKO MODU EGOKIAK



*“Eraikinetan eta ikusleetan edo inezkoetan inpaktua murrizteko beharra kontuan hartu.*

## Jarraitu beharreko baldintzak

### Egitura

1. Soinu ekipoa MUGATZAILE AKUSTIKOA instalatu.
2. Mugatzaileak **gehienezko 90dB** ez gainditzeko mugan doitu.
3. **55dBko** baldintza betetzeko bolumenaren maila markatuta izan.
4. Bozgorailuak **soinuaren noranzko modu egokian instalatu**, eraikin eta ikusle edo oinezkoenganako eragina murrizteko beharra kontuan hartuta.
5. **Ezin izango da musika irakurketa eduki karrozak** edo KZSak aparkaleku-eremuetatik (Feriala eta Usabal) Udalak izendatutako eremu finkora **eramaten diren bitartean**.



### Bizikidetz


1. Ordutegia eta zarata maila gogoan izan une oro.
2. Gaueko **01:00etatik aurrera musika itzalita** egongo da.
3. Emanaldirik ez dagoenean, musikaren bolumena, gutxienez, baimendutako bolumenaren erdira jaitsi.
4. Une oro errespetatu behar dira txarangak eta bereziki kalejirak:  
bai zezen-plazako igoeran bai jaitsieran ere. (Zezen Plaza, Oria, San Frantzisko, Triangulo, Korreo, Berdura plaza).  
Ibilbidean eta haren ondoan dauden karrozen eta konpartsen edo KZS-en **soinu-ekipoak itzalita** egon beharko dira **18:00etatik 20:00etara**.



**01:00etatik aurrera**

5. **Zarata kontrolatzeko gune berezia:** Trianguloa eta San Frantzisko pasealekuko 1. eta 2. zenbakien artean (San Frantzisko Eliza eta Kutxabank) zuzeneko musikarekin emanaldiak egiten dituzten konpartsak baino ez dira onartuko.
6. **Konpartsa ibiltariak**, disko-konpartsak, elektro-txarangak edo musika eramateko karro, gurdi edo orgak, emanaldirik gabe, **ezin izango dira geldirik egon luzaroan (gehienez 30 min)**.  
Baimendutako gehieneko soinu-maila eutsiz eta lekuz aldatzean, beren musika-ekipoak itzaliz, beste ekitaldi batzuei kalte egingo dien musika akoplatzea edo gainjartzea saihesteko asmoz.

*“Izan besteeiko arduratsua”*



# Iñauteriak 2020

## Xedea

Karrozek, konpartsek (plataformarekin edo gabe), elektro-txarangek eta soinua anplifikatzea dakarren beste edozein motatako jarduerak **sortutako zarata-maila garatu eta kontrolatzeko** beharrezko arauak ezartzea, edozein dela ere haien anplifikazio-sistema eta TOLOSAKO UDALAK "IÑAUTERIAK 2020" GISA IZENDATUTAKO DATA ETA ORDUETAN, EGUNGO ARAUDIA BEHIN-BEHINEAN ALDATZEN ETA/EDO ETETEN DUTENAK.

## Kontrol prozedura

Tolosako Udalak, Udaltzaingoa eta/edo enpresa laguntzaile bat izendatuko ditu emisio akustikoak kontrolatzeko, **IKA** gisara (Kutsadura Akustikoko Ikuskatzailea), ezarritako mugak betetzen direla ziurtatzeko.

Iñauteriak hasi baino lehen, Tolosako Udalak, parte-hartzaileen soinu-ekipoak kontrolatzeko egunak eta lekuak zehaztuko ditu eta kontrol-erregistroa beteko da (2. eranskina).

## Zehapen prozedura

Soinu-ekipamendua instalatuta duten parte-hartzaileek arau hauetan adierazitako soinu-mailak gainditzen badituzte, Udalak zehapen-prozedurari ekin ahal izango dio, eta zehapen ekonomikoak ezarri ahal izango ditu, edo, udal honek diruz lagundutako taldea bada, diru-laguntzak arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera emandako laguntza galduko lukete.

# GOGORATU BEHARREZKOAK

### DEBEKATUTA DAGO

Parte hartzen duten taldeek edozein jardura edo parodiatan, elementu piro-teknikoak edo antzeko-erabiltzea



ak

### DEBEKATUTA DAGO

Ikatzeko barbakoak, egurra, plantxa elektrikoak, labetxoak, gas-kanpina edo antzekoak erabiltzea.



### DEBEKATUTA DAGO

Ezin da animaliarik iñauterietako dekoratuaren edo egituraren barruan egon, eta ezin dute jarduketetan parte hartu.



### DEBEKATUTA DAGO

Pertsoneri kalteak eragin edo segurtasunaren aurkakoak diren objektuak, aparrak, eta beste edozein motatako substantziak botatzea.



TOLOSA  udala  
Kultura | Festak | Gazteria



**90dB Gehienez**